

1. GAIA

INPERIALISMOAREN AROA (1884-1914/45)

Farrokh Bulsara → Freddie Mercury , Afrikan jaiotako Indiar familiakoa, BHko sinbolo bilakatuta. Inperialismoaren adibide nabarmen bat.

Hainbat aipu

- Leopoldo Sédar Senghor, Senegaleko Presidentea 1960-1980. Kolonialismo edo inperialismoaren alde txar eta onak baloratzen ditu.

“La colonización tiene su faceta positiva y su faceta negativa. Por una parte, es evidente que ha favorecido el desarrollo de un proceso natural de totalización del mundo. En ese sentido, gracias a la colonización se ha ido creando, siglo tras siglo, la civilización entendida como universal. Sin embargo, por otra parte, la explotación que implica el hecho colonial, hace de un fenómeno nefasto.

En realidad, en cualquier época, la colonización ha comportado aspectos muy negativos. Basta con analizar, como ejemplo, la historia de África. [...] Hasta mediados del siglo XIX, los árabes y europeos organizaron el comercio humano llamado ‘trata de negros’. [...] Se calcula que ese genocidio provocó cien millones de muertos. Yo creo que fueron doscientos millones. Se trata del genocidio más brutal de la historia. El mal causado al África negra es el terrible que jamás de haya causado a una etnia.

Y, sin embargo, insisto en el hecho de que la colonización ha comportado algo positivo en sentido de que a los pueblos africanos nos ha permitido entrar en el mundo moderno. El proceso colonizador nos ha aportado aspectos culturales que, a pesar de ser extranjeros, cabe considerar como fecundos.”

- A. Dubarry kazetari eta esploratzailea. Viaje a Dahomey, 1879.

“El negro salvaje y bárbaro es capaz de todas las estupideces desgraciadamente, Dios sabe el porqué, parece estar condenado en su país de origen a la salvajería y a la barbarie para siempre. Con tres semanas de trabajo tiene para garantizar su provisión de arroz, maíz, etc. Si trabajara seis meses, haría de su paria un paraíso. Pero cualquier idea de progreso y de moral no le permite darse cuenta del calor incalculable, del infinito poder del trabajo y sus leyes son sus pasiones brutales, sus apetencias feroces, los caprichos de su imaginación perturbada. El indígena vive al día, a la aventura, indiferente al mañana. Su gusto poco delicado le permite adaptarse a los que le ofrecen el azar”.

- J. Junt. Sesión científica de la Sociedad Antropológica de Londres, 1863.

“Las analogías entre los negros y los monos son más grandes que entre los monos y los europeos. El negro es inferior, intelectualmente, al hombre europeo. El negro sólo puede ser humanizado y civilizado por los europeos”.

- Negro, artículo del Grand Dictionnaire Universel Larousse du XIX. Siclé, 1972.

“La inferioridad intelectual de los negros, lejos de conferirnos el derecho de abusar de su debilidad, nos impone el deber de ayudarlos y protegerlos”.

- Farmochi, curso de geografía universal, 1850.

Sin negar que los negros se puedan civilizar, es cierto, pero, que su civilización siempre será inferior a la nuestra, porque la fuerza de la mente de aquella gente es realmente inferior. Creemos que la raza superior a cualquier otra, aquella de la que dependerá siempre el destino del mundo, es la raza blanca”.

Bi gauza ezberdin bateratzen dituzte: arraza beltzaren gutxiagotasuna eta gizon zuriak duen bere gaineko betebeharra.

0. SARRERA

Denboran atzera eginda, inperialismoa **globalizazioarekin erlazionatzen** dela ondoriozta genezake.


- 1492an Amerikaren deskubrimendua. Horren mundua aldatu zuen eta Europak eskuratu zuen nagusigoa.
- - o Europarrak mundura zabaldu: Itsasoan nagusi ziren eta lurrian ezarri ziren.



- Lehendabizi, espainiar eta portugaldarrak.

- o Tordesillaseko ituna, 1494.

- o Vasco de Gama: Indiara heldu eta Calicut kolonia ezarri (1498)




- C. Colonen bidaiekin, Amerikaren kolonizazioa burutu zen. Kontinentearen izena Americoren omenez, kontinente berria zela esan zuenaren omenez.



- XVII. Menderako, beste potentziak ere itsasoan zabaldu ziren.

Amerika deskubritzearekin batera mundua aldatzen da: handiagoa eta borobila da. Europarrei beste ikuspuntu bat emango die honek eta aukera berriak ikusiko dituzte beraien aurrerapenerako. Horrela, globalizazioaren hasieratzat har daiteke gertaera hau. Honekin batera hasiko dira inperio handiak egituratzen. Espainia eta Portugal izango dira lehenak, baina gerora gainerako potentziak ere horretara joko dute lur asko deskubritzeko dagoela kontutan hartuta. Tordesillaseko hitzarmenarekin batera, espainiarrak Ameriketara joango dira eta portugaldarrak Afrika zein Indiara joko dute. Esan bezala, horrela sortuko dira lehen koloniak. Gainontzeko europar estatuak ere beren kolonia berriak eratzen hasiko dira XV.mendetik aurrera (berezi Frantzia eta BH).



XVIII-XIX: europarren arteko **gatazkak** kolonietan

- AEBen **independentzia** (1776-89). Espainiarrak AEB eta Mexiko galdu (1821). Frantzia eta BH nagusitzen hasiak.
- Europarrak Asia eta Afrikan nagusitu: **1884/5 Berlinen** egindako bileretan egindako lurren banaketa.

Honako bereizketa egin behar dugu:

- **1870ko h. arte: *Esplotazio kolonial ez formala***. Metropoliak ez dituzte koloniak zuzenean kudeatzen; interes ekonomikoak eta merkataritza harremanak nagusi.

Hamarkada honetan aldatu egingo dira europarrek munduko beste eremuekin dituzten harremanak. “Indiako kostaldeko espeziak eskuratu”.

- **1870tik aurrera**: industrializazioarekin batera, kolonien ***gaineko kontrol politikoa***. Menpekotasun formala, lurren gaineko administrazioa ezarri. Indarraren bidez (kostu handia).

Horrela, potentziak euren kontrolpean dituzten lur eremu txikiak kontrolatzetik lurralde zabalagoak kontrolatu eta bertako kontrol politikoa ezartzen hasiko dira. Horrela, guk inperioztat ezagutzen duguna sortzen hasiko da. “Indiar izateaz gain britainiar ere bazarete, menpekotasun formala sortzen da”.

Europar **estatuak inperio** bihurtu ziren kolonien bidez.

- Inperio handiak ziren, bakoitza bere ezaugarriekin.

II Mundu Gerra arte **irauten** dute inperioek:

- 1945 ostean, deskolonizazio prozesua hasten da Egiptorekin (6.1.gaia)
- Kolonien independentzia prozesua, neokolonialismoa. Munduko potentzia ezberdinen mende dauden lurraldeak beren independentzia lortzen hasiko dira. Prozesu hori lurraldearen arabera bizkor edo geldoagoa eta gatazka gehiago edo gutxiagokoa izan daiteke.

Aipu bat:

- Jules Ferry, 1882, frantziar lehen ministroa, kolonialismoaren bultzatzailea.

Le política colonial se impone en primer lugar en las naciones que deben recurrir a la emigración, ya por ser pobre su población, ya por ser excesiva (...) Pero hay otro aspecto de esta cuestión mucho más importante: la cuestión colonial es, para países como el nuestro, dedicados por la naturaleza misma de su industria a una gran exportación, el problema mismo de los mercados. Allí donde se tenga dominio político, se tendrá también predominio de los productos, predominio económico.”

1. IMPERIALISMOA: INPERIOEN ANTOLAKETA

Zer da inperialismoa?

XIX. Mendean zehar hasi zen terminoa erabiltzen

Mendebaldeko estatuen handitasuna eta zabalkundea *justifikatzeko* erabiltzen zuten terminoa, garai klasikoak gogoratu.

- Gizonezko zuriok gaitasun handiagoa dugunez, gutxiago direnak zuzentzea da gure betebeharra.
- Inguruko lurren eta nazioarteko konkistan oinarritzen da.

Inperialismoak **eragina** izango du politika, ekonomian, gizartean, kulturean ...

- Eredu bat salduko zaie menperatutakoei. Adibide gisa dugu Maroko, non Frantsesez hitz egiten den eta arratsaldean BHko tea hartzen duten.

BHK zeresan handia. Munduko ontziteriaren %45 euren eskuetan. Itsasoan nagusi zirenez, munduan ere izatera igaro ziren.



Zerk azaltzen du edo nola azal daiteke europarren nagusigoa?

- **Industrializazioa:** Produkzio igoera, merkatu berrien bila. Industrializazioak bultzada handia emango die europar potentziei. Adibidez har dezakegu Bilbo. Potentzietan produzitutakoa saldu beharra dago eta merkatu berrien beharra izango da bertan horiek saltzeko. Horrela, labanak salduko dira europar ideiekin batera.
- **Teknologiaren garrantzia.** Industrializazioarekin batera emango da teknologiaren aurrerapena. Armak eta garraioa.

- **Europaren nagusigo historikoa** munduan. Amerika deskubritu eta konkistatu. Eta zibilizatu; mundua europartzeko (zibilizatzeko) beharra, mendebaldeko ohituretara ekarri. Gizon zuriaren nagusigoa, gainontzekoen gainetik.
 - Darwinismo soziala. Espezien eboluzioa aplikatuko da, hautespen naturalarekin batera, gizartea azaltzeko.
- **Potentzien lehia:** nazioartera zabaldu. Europa txiki geratu. Munduko potentzia nagusi bilakatu eta aberastasun handiena eskuratzea izango dute helburu potentziek.
 - Estatua, nazio-estatua, inperio bihurtu. Hau ere justifikazio gisa baliatuko dute guztiak batera joan behar garela laudatuz.

Interpretazio ekonomikoak:

Honakoa, oro har, Marxismotik egindako interpretazio bat da (nahikoa eztabaidatua izan dena):

Kapitalismoak beharrezkoa du inperialismoa, izan ere:

- Etekinak handitu. Merkataritzaren hazkundera eta hazkunde ekonomikoak harreman berriak sortarazten ditu: soberakinak esportatu egiten dira eta lehengaiak kanpotik inportatzen dira. Hots, produkzioa bideratzeko, kontsumitzaile gehiago behar da.
- Gainera aintzat hartu beharrezkoa da, adibidez, Frantziak ez zuela soilik kolonien okupaziora jo; Bilbon bertan ere inbertitu zuen. Honek erakutsarazten du marxisten arrazoa.

Garaiko buruzagiek argi zuten: beharrezkoa da estatuaren mugak zabaltzea ekonomia indartzeko. Industria nagusi izanda, merkatuak zabaldu behar dira.

Europaren inbertsioek mundua (ekonomia) Europaren mesedetan antolatu.

Espezializazioak eragin:

- Europaren eta kolonien artean *menpekotasun harremanak* ezarriko dira.
 - Europa industrian espezializatzen da, industria ondasunak ekoitzi eta lehengaiak kontsumitzen ditu.

- Koloniek, industria ondasunak kontsumitu nahi baina lehengaiak produzituko dituzte.

Horrek desoreka eragingo du, ondasun industriak balio altuagoa duelako: balio handiagoa izango du Frantziak ekoiztutako soinekoak Txinan jasotako arrozak baino.

- Horrela, Europak munduko ekonomia eta merkataritzan agindu eta bentaja izango du
 - Merkataritza balantza desorekatua.
 - Europarrak europarrei gehien erosi eta saldu. Koloniei saltzeaz gain europarrek beren artean (burdina hemendik BH, bertan motorra, Frantzian kotxea eta kotxea esportatzen da Txinara, non mila milioika kilo arroz truke salduko den). Konpetentzia egon arren, bezero onenak industria gaietan.

Testuaren lanketa: *Conferencia de Berlin, Acta General, Febrero de 1885. 2.Praktika.*

Interpretazio geo-politiko-ideologikoak:

Azalpen ekonomikoen adinako indarra edo handiagoa dute hauek.

Europar estatuek politika inperialista (boterea) baliatuko dute nagusigoa ezartzeko. Horrela, ideologia edo diskurtso bat sortuko dute egiten ari direna justifikatzeko. Ondorioz, botere harreman berriak eraikiko dira: *Gizon zuria da modernoa.*

Horrez gain, europar potentzien artean ere lehiakortasuna zegoen: besteen hazkundera ekiditeko koloniak zabaltzeko joera sustatu zen hala.

- BHK Nilo ibaia kontrolatu ostean, Frantziak beste lur batzuk bilatu behar eta Afrika ipar eta ekialdeko kostaldean zabaldu.
- Errusia ekialdera zabaltzen hasteak, BHren zabalkundera bultzatu, eta Indiako penintsula (Indostan) azkarrago kontrolatu.

Europar estatuen **nazionalismoa** indartu eta zabaldu zen; eta ideologia berri hori arrazakeriarekin nahastu zen.

- Aurretik dagoeneko europarrak besteak baino hobeagoak sentitzen ziren

- Jatorria, hizkuntza (kultura), helburua, sinbologia, erlijioa (?), sentimendua /ezberdintzeko joera (gehiago).

“Europa eta europarrak onenak dira”, eta euren kultura zabaltzeko grina piztu zen

- “Mundua europartu” behar da
- Goi mailako arrazaren betebeharra da hori



Inperialismoa; inperioen antoalketa

Aurrerapen teknologikoen lana erraztu zuten inperioen eraketan

- Koloniak menderatzea ez zen hain zaila, eta kostu txikia izan zuen
- Teknologia inperialismoa merkatzen lagundu zuen; adibidez, armekin.

Metropolietatik dena eraman eta ekarri: bizimodua, ohiturak, etxeak, kultura, artea, garraioa, aisialdia, lana, gaixotasunak, abereak, landareak ...

Testuinguru honetan sortuko dira Tarzanen antzerako kontakizunak; izan ere, orduan izango da Europarrak edo europartutako kolonoak lurralde horiei buruz idazten hasiko diren unea.

“Palacio de cristal” deiturikoak ere orduan sortuko dira, kolonietatik ekarritako landareak bertan haz zitezen ahalbidetzeko.



Afrika

Afrikan, europarrak aspalditik. Kontinentearen barnealdea esploratzen, kontaktuak bertakoekin eta euren artean.

1884/5an, Berlinen, europar potentziak bildu eta Afrikako lurak banatu zituzten.


Bertan adostutako puntu nagusiak (*Testuaren lanketa, praktikan*):

- Niger eta Kongo ibaietan nabigatzea eta merkataritza askea.
- Elkar errespetatzeko akordioa.

Lurren banaketa:

- o Alemaniari Inperioa: Gineako Golkoa, Kamerun eta Togo
- o Italia
- o Belgika: Leopoldok Kongon
- o Portugal: Angola eta Mozambike
- o Frantzia
- o BH: lau itsasoetara irteera

PARTITION OF AFRICA 1885-1914



Koloniak **administratzeko** bi modu nagusi

- 1) **Frantzia:** Metropoliak kolonia zuzenean kudeatzen zuen. Horrela, kolonia metropoliko administrazioaren zati izango da. Hemen kolono zuriek metropoliko gainontzeko hiritarren eskubide berberak zituen. Bestek ordea, zuri ez zirenak, ez.
- 2) **Britainia Handia:** Koloniek autogobernua mantendu zuten. **Metropoliek indarra baliatu zuten kolonietan, eta koloniek autonomia izan zuten ordainetan.** Bertakoek ordezkariak kolonien gobernuetan.

Frantzia eta BHren adibideak baliatu ditugun arren, esan genezake Europako Inperio nagusienek bi modu horietako bat baliatu zutela beren kolonien administrazioarako.

Adibideak

Britainia Handia:

Britainia Handia inperio handiena izan zen, hiru mendetan zehar eraikia.

- Lur azaleraren ia laurdena kontrolpean izatera heldu zen.

Bere koloniak esplotazio koloniar eta bizilekuak ziren.



Orokorrean, koloniek autonomia handiagoa zuten. Izan ere, domeinuan (dominio) oinarritutakoak izaten ziren. Bereziki kolono asko zegoen lekuetan erabilitako metodoa izan zen, beren autonomia bermatzen zuena.

- Horren ondorioz, XIX. mendeko bigarren erdialdetik aurrera kolonia izandako hainbat lurraldek bere gobernu propioa garatu zuten: Kanada, Zeelanda Berria, Hegoafrika eta Australiak kasu.
- Esan bezala, autonomia handiko koloniak ziren horiek. Konpetentzia handiak zituzten kolonoek, beren ordezkari propioekin administrazio propioa zutenak. Dena den, BHK ezartzen zuen gobernadorea.

India:

Britainiar Inperioaren harribitxia izan zen, "*La joya de la corona*".

- Izan ere kokapen estrategikoa du Indiak: Asiarekin harremanak kontrolatzea ahalbidetzen du (1763)

Horrela, XIX. menderako, *British East India Company* deiturikoaren eskuetan zegoen penintsula. Honek zuen BH eta Indikoaren arteko merkataritzaren monopolioa.

- Horrekin haserre zeuden natiboak. Horrela, Sepoy, Cipaye-ak (konpainiaren indar militarreko natiboak) konpainiaren aurka matxinatu ziren, 1857-58 artean.

Horren ondorioz konpainia desegin egin zen eta lurraldea koroaren eskuetan geratu zen zuzenean.

Indian gobernadore orokorra eta funtzionario zibilak ezarri ziren, *Civil Service* deiturikoa burutzeko. Horrek Indiaren europartzen prozesua zuzendu zuen eta India BHren zerbitzura geratu zen:

- Garraio sarea, hezkuntza, ekonomian espezializazioa osagarri lez eta lehen sektorerako biderapena ...

Ordea, 1885ean Indiako Kongresu Nazionala sortu zen. Horrela, indiar nazionalismoa indartu eta bertan domeinu administrazioa ezartzeko proposamena egin zen.

- 1906: Liga Musulmana
- 1928: independentzia eskatzen; Gandhi: masa nazionalismoa
- 1947an: BHK independentzia onartu
 - o Honek Pakistan eta Indiaren arteko gerrei eman zien hasiera: Cachemira (1947-49, 1965) eta Bangladesh (1971)

Gainontzeko lurraldeak:

- **Egipto:** 1882an protektoratuta. Indiarako bidean klabea zen.
- **Hegoafrika:** 1806an indiarako bidean klabea.
- **Afrika kostaldean** zehar eta Nilo ibaian zehar:
 - o IMG, zabalkundea: Kamerun, Ekialde Hurbila (Palestina, Jordania, Irak ...)
 - o Suezeko kanala, 1869an.

Frantzia



Magreb: Aljeria (1830), Tunisia (1881), Maroko (1912)

Berlingo kongresuan (1884-1885): Afrika Mendebaldea, Afrika Subsahariarra eta Madagaskar.

- Ekialde hurbilean (Siria eta Libano)
- Indotxina



Frantziar gobernuak metropoliaren administrazio ereduak errepikatu zuen; hau da, Frantzian zegoen ereduak aplikatu zuen kolonietan: Horrela, Koloniak departamentutzat jo zituzten (probintziatzat).

Ondorioz, Frantziar kolonoek metropoliaren sistema politikoan parte hartu:

- Hauteskundeetan, ordezkaritza Asanblada Nagusian.

Aljeria: 1830tik aurrera, 30 urtetan zehar kontrolatu zuten lurraldea. 1871n hiru departamentu. Kolono frantziarrek soilik zituzten eskubideak, natibo musulmanek ez ordea (1954/62).

Senegal: 1850tik. Esklabutza.

Indotxina: XVIII-XIX.mendeetan frantziarrak Asian zabaldu ziren. Saigon eta Mekong ibaian gora, Txinarekin merkatal harremanak ezartze aldera.

Horrela, 1885-1907 bitarte penintsula kontrolatu zuten.

2. LEHEN MUNDU GERRAREN AURREKARIAK